

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2400

EBAZPENA, 2021eko martxoaren 3koa, Hezkuntzako sailburuordearena, zeinaren bidez argitaratzen baita zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako udal eskolei 2020-2021eko ikasturterako emandako dirulaguntzak.

2020ko abenduaren 21eko EHAAñ, Hezkuntzako sailburuaren 2020ko urriaren 27ko Agindua argitaratu zen, non arautzen baitziren 3 urtetik beherako umeentzako udal eskolentzako 2020-2021eko ikasturterako dirulaguntzak eskuratzeko baldintzak.

Aipatutako aginduaren 11.1 artikularekin bat etorriz, Hezkuntzako sailburuaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Horrek ez du esan nahi onuradun gertatzen direnei jakinarazpen banakatua egingo ez zaienik. Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hezkuntzako sailburuaren 2020ko urriaren 27ko Aginduaren babesean emandako dirulaguntza guztiak eta onuradunak jakinaraztea. Zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 3a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

2021eko apirilaren 27a, astearta

ERANSKINA
EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

	Udala	1. ordainketa	2. ordainketa	GUZTIRA
Araba	Gaubea	8.746,68	20.408,93	29.155,61
	Vitoria-Gasteiz	273.593,25	638.384,24	911.977,49
Bizkaia	Barakaldo	82.157,97	191.701,93	273.859,90
	Portugalete	40.922,36	95.485,49	136.407,85
Gipuzkoa	Andoain	59.883,24	139.727,56	199.610,80
	Aretxabaleta	51.101,75	119.237,41	170.339,16
	Arrasate	86.984,48	202.963,78	289.948,26
	Eskoriatza	22.288,13	52.005,64	74.293,77
	Irun	37.284,14	86.996,31	124.280,45
	Oiartzun	98.498,77	229.830,45	328.329,22
	Ordizia	48.395,31	112.922,40	161.317,71
	Pasaia	23.351,88	54.487,72	77.839,60
	Usurbil	34.498,77	80.497,12	114.995,89
EAE		867.706,73	2.024.648,98	2.892.355,71